


STEEEILAS



Irakaskuntza pribatua

Depósito legal: BI-2729/00

2008ko otsaila

38. zenbakia



Eta orain, norantz?

2008. urteko negoziazio kolektiboa • Komeni al zaio benetan enpresari txanda kontratua? • 2008. urteko aurrekontuak onartu dituzte • AZPkoen txokoa • martxoak 8: • Agenda Soziala • Erljioaren kontrako helegitea LOEn • Lan istripu gehiagorik ez! • Berriak • Boletinak

ARABA: Fuente de los Patos, 2, 3.C
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja)

01001 Gasteiz
48003 Bilbao
20015 Donostia
31001 Iruñea

☎ 945 14 11 04
☎ 944 10 02 98
☎ 943 46 60 00
☎ 948 21 23 55

☎ 945 14 43 02
☎ 944 10 13 60
☎ 943 45 36 27
☎ 948 22 97 90

araba@stee-eilas.org
bizkaia@stee-eilas.org
gipuzkoa@stee-eilas.org
nafarroa@stee-eilas.org

2008. urteko negoziazio kolektiboa

Hezkuntza geurea delako

aurkibidea

Irakaskuntza Pribatua

2008. urtekoko negoziazio kolektiboa 2

Komeni al zaio benetan enpresari txanda kontratua? 3

2008. urteko aurrekontuak onartu dituzte 4

AZPkoen txokoa 4

Martxoak 8: lanbideek generoa ote dute? 5

Agenda Soziala 6

Erljiioaren kontrako helegitea LOEn 6

Lan istripu gehiagorik ez 6

Berriak 7

Boletina 8

Hortik kontrakoa saltzen den arren, EAE-n irakaskuntza pribatua finantzatzeko esparru-hitzarmen berria oraindik urrun dago. Eta urrun jarraituko du sindikatuek hitzen bitartez bakarrik eskatzen duten bitartean. Praktikak esaten digu Hezkuntza Sailak aurrerapausorik ez duela emango ez badugu horretara behartzen, beste hainbat borroketan gertatu den bezala: irakaskuntza publikoan, Osakidetzan... Beraz, mobilizatzeko eta ez begiratzen geratzeko garaia da.

Nabaria da esparru honen inguruan ez dagoela adostasun gehiegirik, ez politikoki ez sindikalki. Eredutzat ikastolen arloan ELAk, LABek eta Partaidek hitzarmendutakoa hartzen da, eta antzeko zerbait nahi da gizarte ekimeneko ikastetxeentzat, horrela gehiagorik egin gabe arazoa konponduko balitz bezala.

Adostasun falta dago eta lortzeko gogo gutxi dagoela dirudi. Pasilloko lanak eta bilera bilateralez gain ez dago hain beharrezkoa den foro irekirik. Zerbait sukaldatu nahian dabilta baina horretarako osagaiak falta ditugu. Hezkuntza Lege baten proposamena aukera on bat izan daiteke baina badirudi hurrengo legegintzaldirarte atzeratuko dela. Galdera da ea horrenbeste itxaron dezakegun.

Egoera honetan hezkuntza eragile bakoitzak irudikatu behar ditu beren asmoak, batez ere gure jarduera eremuan arlo pribatua gainditzen dugunok. Ez du balio ez zalantzagarritasunik ez kontsekuenteak ez diren mezuak ezta kontraesankorrek direnak ere ez. Akordioa sendoa izan dadin eta dar-dar egin ez dezan, eragile ezberdinok arduratsuki jokatu behar dugu.

Ildo hori jarraituz STEE-EILAS denetaz eta denekin hitz egiteko prest dago eta ezin zaio eskatu alde batetara geratzea bere iritzia azaldu gabe. Horregatik, ELAri asko gustatzen zaion *Kristau Eskolak* egindako proposamenaren aurrean argi uzten ditugu ikusten ditugun dudak:

- ✓ Irakaskuntza pribatuko akordio partziala, hezkuntza-sistema osoa eragiten duen beste akordio global baten atal bat izan behar da.
- ✓ Akordioetarako, beharrezko gehiengo sindikalak bilatu behar dira, gehiengo sektorialen gainera.
- ✓ Edozein akordioak, finantziatzeko eredu berria ezartzeaz gain, ikastetxeek betebeharreko baldintzak eta ebaluapen mekanismoak ere ezarri beharko lituzke. ★

Komeni al zaio benetan enpresari txanda kontratua?

Atera kontuak!

Askok hitz egin da txanda kontratuaren onurei buruz. Barruan dauden langileei ematen dien poztasuna (langile-politika oso ona izango zen), lanpostu berriak sortzea, edo lanpostuen zerrenda berriztatzeak ekartzen dituen ondorioez aparte (laneko bajen aurreikus daitekeen murrizketa, profil berriekin langileekin enpresen kapitalizazioa, lanbide edo hizkuntza trebakuntzarik ezak sortzen dituen arazoan gaintzea,...), langileei erretiro partziala emateko arrazoi nagusia enpresentzat errentagarritasun ekonomikoa da.

Segidan, erretiro partziala enpresei ekartzen dien ondorio ekonomikoak aztertuko ditugu. Azterketa, gainera egingo dugu eta baliteke akatsak izatea. Geratu zaitezte irakurketa orokorrarekin.

Langileak ordainketa eskuordetua jasotzen badu. Enpresak 60 urte betetzen duen pertsona ordezkatzeko txanda kontratu baten bidez egiten bada, bi diru-laguntza mota jaso ditzake:

1.- Prestakuntzako kontratuak, erretiro aurretik egiten diren errelebo eta ordezkoko kontratuak, bai jardunaldi osokoak zein partzialekoak, mugagabe bihurtzen badira, Gizarte Segurantzako enpresa-kuotan hobaria izango dute. Hobaria, lau urtetan, 41,67 € hilekoko da (500€ urtekoa) (12/01 Legea eta 43/06 Legea)

2.- 329/2003 Dekretuarekin (BOPV 255) Eusko Jaurlaritzak, bai langabezian dauden pertsonen bai enpresa horren iraupen mugatuko kontratua duenei txanda kontratuak egiteko diru-laguntza ematen du. Txanda kontratua mugagabea eta lanaldi osokoa izatea baldintza bakarra da. Kontratua iraupen mugatukoa egiten bada, hasierako konpromiso bat jaso behar da bukatzerakoan mugagabeko kontratu bihurtzeko. Errelebolariak enpresan lan egingo balu, enpresak, aipatutako aldi baterako kontratuaren bukaerarako falta den denboraz langabezian dagoen beste pertsona bat kontratatu egin behar du. Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza gutxienez, 4.510 eurokoa izaten da, eta

gehienez, 7.515 eurokoa, errelebolariaren kontratazioaren arabera. Kasu guztietan, kontratua emakumea bada, kantitatea 1.505 eurotan handitzen da.

Orain dela gutxi Gizarte Segurantzaren erreforma indarrean egon arren, oraindik ez duela eraginik gogorarazi behar da. Erretiro partzialera heltzen diren langileek bere lanaldiaren %15a bete behar dute ikastetxean, baina zati honek ere diru-laguntza jasotzen du. 439/1999 Dekretuak (287/2003 eta 93/2005 Dekretuekin aldatuta) ikastetxeentzat dirulaguntzak ezartzen ditu, ordainsariaren zenbateko osoa eta partzialki erretiratzen den langilearen gastu soziala ordaintzeko diru-laguntza emanez (lanaldiaren %15ean). Horrela, nahiz eta 65 urte bete arte %100ean jubilatua ez izan, lanaldiaren zati hau ez du bete behar. Enpresak, horrenbesteko antzintasuna jasoko ez duen beste langilea jarriko du bere postuan ikastetxean. Lanaldiaren %15aren zati proportzionala eta 840 hiru urteko gutxienekoari buruz hitz egiten ari gara (12 hiru urteko X 14 ordainsari X 5 urte), kostu soziala barne: 6.626 € (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH1) eta 8.181,2 € (besteak)

Langileak ordainketa eskuordetua jasotzen ez bada.

Enpresak, 1. eta 2. atalen diru-laguntzak jasoko lituzke (6.510 € gutxienez) eta, batez ere, antzintasunaren kantitatea aurreztuko luke (%15a besterik ez luke ordainduko) gutxieneko aurrezkoa 840 hiru urteko kalkulatu dugu (12 hiru urteko X 14 ordainsari X 5 urte) kostu soziala barne. Eraitza asko aldatzen da, baina beti oso onuragarria enpresentzako:

- Batxilergoa eta zikloak: 46.360 €
- Administrazioko langileak, atezaina, garbiketa, mantentzeko ofiziala ... 31.167 €.

Kasu honetan, gogorarazi behar dugu, langileek 65 urte bete arte lan egin behar dutela lanaldiaren %15a. Orain zuek erantzun: enpresari interesatzen zaio ala ez. ★

2008. urteko aurrekontuak onartu dituzte

Aurreko aldizkarian aurreratzen genuen bezala, gutxi dira abenduaren 28an onartu zituzten Eusko Jaurlaritzaren 2008rako aurrekontuak. Are gutxiago oraindik Hezkuntza Sailaren atala, zein %7,6a igotzen den aurrekontu orokorraren igoera %13,7koa denean. Berrito ere ikus daiteke Hezkuntza pisua galtzen doala beste Departamentuekiko. Zehazkiago, bere pisuaren %10a galdu du azken 10 urteetan. Aurrekontu orokorrak denbora tarte honetan %60,7 igo diren bitartean, hezkuntzakoak % 41,7a baino ez dira igo. Gainera, ia aurrekontuen erdia doa zuzenean bai beste erakunde publiko nahiz pribatuetara bai familiengana, kudeatzeko gaitasuna murriztuz doalarik. 650 milioi € baino gehiago (aurrekontuaren ¼) entitate pribatuak finantzatzeko erabiltzen dira, batik bat itunpeko ikastetxeak (600 bat milioi) edota unibertsitate pribatuak. Finantziazio maila honek ez du parerik Europa osoan. 530 milioi doaz hezkuntza itunetarako, hainbat kontzeptuengatik ematen den diru kopurua igo dira nabarmen, hala nola 0-3 (31m.), Hezkuntza Laguntzako Espezialistak (8,6 m.) edo ikasle etorkinak (2,6 m.) Horiez gain 30en bat partida gehiago daude. Halere ikastetxeek dituzten baliabideak ez dira aproposenak eta langileok ditugun baldintza laboralak ez dira homologatu irakaskuntza publikoko langilek dituztenekin ★

STEE-EILASek eskaintzen dizu

Ezagutu gaitzazu nahi dugulako, jaso etxean dohainik eta konpromisorik gabe:

- ✓ *Irakaskuntza Pribatuaren* aldizkaria.
- ✓ *Inforriak* (Berehalako informazio elektronikoa)

Posta arruntaz edo posta elektronikoz jaso ditzakezu, edota jo ezazu Web honetara:


www.stee-eilas.org

AZPkoen Txokoa

Txanda kontratua

Txanda kontratua paregabeko abagunea dugu bai langilearentzat baita enpresarentzat ere, alde batetik, langileak soldata mantentzen du eta gainera denbora libre gehiago izango du bere gauzatarako eta bestetik, enpresak hainbat abantaila izango ditu eta langileria gaztetuko du.. Egia da 60 urte izan behar duzula baina zorionez niri heldu zait unea, eta aprobeztatuko dut. Datorren urtean ezberdina izango da, eta hurrengoak ere bai. Bizitza ez da lana bakarrik, bizitza denbora disfrutatzeke bada ere: irakurri, paseatu lagunekin, bakoitzaren gauzak egiteko aukera, familiarekin egoteko, ditudan zaletasunez disfrutatzeke. Eta azkenean eta batez ere nire denbora erabiltzeke nahi dudan bezala. Honek badu ere bere ondorio txarrak, zenbat paper bete behar. Zelako eztabaidak enpresarekin, zenbat gauza entzun eta eutsi behar baita. Ni behintzat ziur nago merezi duela.★

Maité A.R



Martxoak 8

Lanbideek generoa ote dute?

“Emakumeei historikoki atxiki zaizkien lanek ez dute jatorria naturan, gizartean baizik”

Legeek berdintasuna bermatzen dute, baina praktika sozialak, mentalitateak eta pertsonen jarrerak ez dira aldatzen lege hutsekin. Horregatik beharrezkoa da zuzenean eskuartzea, oraindik ere emakume izateagatik pairatzen den diskriminazioa aitortuz, berau ezabatzeko. Hezkuntzak izan behar du neska-mutilen aukera berdintasunak bermatuko dituen oinarrizko zutabeetariko bat. Hezkuntza maila desberdinei dagozkien matrikulazio datuak begiratu ezkerreko sexuen arteko proportzioa nahikoa orekatua dela ikusenezake, hala ere lanbide heziketako zenbait adarretan, “lan-jantzi urdinekoak” deritzatenak hain zuzen ere, nesken matrikulazioa nulua da praktikan, eta ondorioz, mekanika eta elektrizitate bezalako ogibideak (eskaera handikoak eta orokorrean ondo ordainduak), gizonek betetzen dituzte. Kontrakoa gertatzen da aldiz, tradizionalki emakumeei ezarritako rolak erreproduzitzen dituzten eta gainera langabezia eta prekarietate laboral handiagoa duten lanbideekin; osasuna, irudi pertsonala, administrarritza, zerbitzu sozio kulturalak...bezalako adarretan mutilen matrikulazioa hutsala da.

Deigarria da enpresa, zein hezkuntza alorreko estamentu desberdinek adierazten duten kezka makina-erreminta sektorean dagoen esku lan faltarengatik; aldiz, ez dute ardurarik adierazten zaintza lanetarako pertsonal prestatu faltagatik, nahiz eta gizarte honetan gero eta handiagoa den dependentzia egoeran bizi den jendearen zaintzarako zerbitzu eskaera.

Banaketa desberdin honek erakusten duena da gure gizartean oraindik ere oso sustraituta dagoela gizonezko eta emakumezkoen rol klasikoaren errepikapena, eta teoriarik aukera berdintasuna erreala izan arren, presio handia dago etxean, famili eta lagun giroan, komunikabideetan...emakumeek

etxeari lotutako jardueretan lan egin dezaten, besteen zaintza adibide.

Beste herrialdeetako esperientziak erakusten digute eskola-orientazio ez diskriminatzailea oinarrizko baldintza dela gaur egun ditugun desoreka horiek zuzentzeko. Beraz, beharrezkoa da ikasketa eta lanbide aukeraketak sustatzea neska-mutilen gustu, gaitasun eta trebetasunak aintzat hartuz, gaur egungo lanbide bereizketarekin apurtuz.

Horregatik gizarteko esparru desberdinetan (ikastetxeak barne) ezkutuan dagoen sexismoa azalaraztea da Martxoaren 8ko kanpainaren helburua. Gaur egungo egoera aldatzeko beharrezkoa da denon inplikazioa; neskak eta emakumeak egoera txarragoan jartzen dituen gizartearen isla denez hezkuntza sistema, hau ere aldatu beharra dago.

Ohi dugun legez, Martxoaren 8ko kartela eta unitate didaktikoa gure web orrian zintzilikatu eta ikastetxeetara bidaliko ditugu, proposatzen dizuegun gaia landu dezazuen. Era berean gogorarazten dizuegu gure web orrian aurreko urteetako unitate guztiak aurkituko dituzuela.

Martxoaren 8ko data hurbildu ahala, antolatuko diren deialdien berri izango duzue.★



AGENDA SOZIALA!!

Oraingoan, txoko honetan bi libururen erreferentzia eskaini nahi dizkizugu, zure eskoletarako oso baliabide didaktiko interesgarriak izan daitezkeelako. Batak **"Espainiako multinazionalak Kolonbian"** du titulutzat. P. Ramiro, E. Gonzalez eta A. Pulidok egin den koaderno elebidun honek Hego Amerikan Espainiako multinazionalak izan duten hedapena jorratzen du, Kolonbiako kasuan zentratuz. Eskatu nahi izanez gero, jarri kontaktuan Bakea ta Duintasuna Elkartearekin cooperacion-euskadi@pazcondignidad.org. Bestea Asturieseko Eleuterio Quintanilla (www.equintanilla.com) taldearen **"Pensad que esto ha sucedido. Guía de Recursos para el estudio del Holocausto"** liburua da. Euren esanetan, *"Auschwitz ha sido posible y, por lo tanto, es todavía posible. Alejar dicha posibilidad forma parte de nuestra tarea como educadores"*. Eskatzeko jo hiruga01@sarenet.es helbidera.

Axa Mixa

duzu. Lan egunetan goizeko 8etan eta asteburuetan 10etan emititzen den irratsaio hau hiru ezaugarri ditu: euskara, kulturartekotasuna eta umeen protagonismoa, hau da, euskaraz eginak dira, kultur ezberdinen arteko elkarriketa dute ardatz eta umeek egindakoak dira. **Tas-Tas irrattia FM 97,0** puntuan entzun dezakezu. Halaber, eskolan material didaktiko paregabe bihur daiteke. Antolatzaileekin harremanetan jartzeko: axamixa@tas-tas.org helbidera edota 944151414 telefonora jo.



*haurrentzako irratsaioa,
goizeko gosariak
alaitzeko*

Axa-Mixa

LAN ISTRIPU GEHIAGORIK EZ !!!

Aurreko ostegunean, urtarrilaren 24an, Bilboko Plaza Biribilean 12.00etan lan istripuen aurkako eta lanean segurtasuna aldarrikatuz kontzentrazioa burutu genuen **STEE-EILAS** eta ESK sindikatuok.



2007an zehar Hego Euskal Herrian 110 langiletik gora lan istripuz hilik suertatu ziren, 60.000 langilek istripuak eta hauen ondorio larriak jasan zituzten eta milaka langilek gaixotasun profesionalak pairatzen dituzte.



Ohartxo honen bitartez, burutu dugun ekintza honen berri eman nahi dizuegu.



STEE-EILAS formalizazio tramitea egin dio LOEren garapenari erlijioaren irakaskuntzari buruz

Joan den astelehenean urtarrilaren 22an **STEE-EILAS** sindikatuak helegite bat formalizatu zuen Ley Organica de Educación delakoaren garapen dekretuen kontra erlijioaren irakaskuntzaren arautzeari dagokionez. Helegitea Auzitegi Gorenaren kontenzioso administratiboaren hirugarren aretoan aurkeztu zuen Euskadiko Irakaskuntzako Langileen Sindikatuak. Zehazkiago 2006ko 1513, 1630 eta 1631 errege Dekretuen kontra jarri du helegitea STEE-EILASek, Lehen hezkuntza, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Derrigorrezko Bigarren Hizkuntzako gutxienezko irakas edukiak ezartzen zituztenak. Errekurtsoa Confederación de Sindicatos de Trabajadores de la Enseñanza (STEs) eta Unió Sindical de Treballadors i

Traballadores de l'Enseñament de Catalunya (USTEC) sindikatuekin batera egin du **STEE-EILAS**ek uste du euskal jendarteak hezkuntza sistema diseinatzeke eskubidea duela, gure biztanleen behar zehatzak aseko dituen hezkuntza sistema eta alor honetan eskuduntza eksklusiboak izango dituen kanpoko inposizioarik gabe. Ildo horretan, gure ustez ez LOEK berak ezta lege honen garapenean erlijioaz egin den arautzeak ez diote erantzuten euskal gizartea eskatzen ari denari.

STEE-EILASek ez du onartzen eztabaida ezina izatea erlijioa curriculumean sartzea, ohiko eskola ordutegiaren barruan ematea edota ikastetxe guztiek eskaini behar izatea, LOEK ezartzen duen bezala.

Urte sabatikoa eskatzeko epea dagoeneko irekirik

Joan den urtarrilaren 1etik dago irekita urte sabatikoa eskatzeko epea. Hitzarmenean "partzialki ordaindutako baimena"ri 75.bis artikulua dagokio.

Baimena horren bidez ikasturte bateko atsedenaldia har dezakegu gure jarduera dozentean, sektorean lan banaketa bultzatzen den bitartean. Urte sabatikoa STEE-EILASek egindako ekarpenari esker ezarri zen irakaskuntza publikoan duela 4 urte.

Eskatzen duena jardunaldi osoz arituko da lau ikasturtez (2008-9 ikasturte 2011-12 ikasturtera) 5. ikasturtea libratuko duelarik (2012-13) Soldata bost ikasturte horietan %84koa izango da.

Argibide gehiago nahi izanez gero jo ezazu Hitzarmeneko V. Eranskina deialdiaren nondik norakoak ezagutzeko. Gure egoitzetan edo posta elektronikoaren bidez ere informatu ahal zaitugu horretaz. ★

Kristau Eskolaren Kongresua

Joan den otsailaren 14an eta 15ean Bilboko Euskalduna Jauregian izan zen Kristau Eskolaren Kongresua. Gonbidapen bati erantzunez hantxe egon zen **STEE-EILAS**eko ordezkariak zabala. Aldi berean mahai inguru batean parte hartzeko aukera izan genuen gure iritziak emateko. ★

Zalantzak 2008. urterako lansarien igoerari buruz

Lansariei dagokionez, 2008. urteko negoziazio kolektiboa bukatutzat eman nahi dute hasi baino lehen. Gauzak aldatzen ez badira –ekiparazio akordioaren ondorioz- irakaskuntza publiko irakasleen soldataren %95ko topea ezarri digute irakasleoi. Horrela, sektore publikoko langileentzat adosten dutenak baldintzatzen du erabat ikastolen eta giza ekimeneko ikastetxeen irakasleen soldata (itunpeko ikastetxeena, batez ere).

Urtarrilaren amaieran Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak ezarri zuen bere kabuz soldaten igoera Administrazio Orokorra: %4,2 gehi 0,5 puntu guk ez daukagun Itzarri prebizio planerako.

Beste aldetik, hezkuntza ituneko modulua %5 (HE eta LH) eta %5,5 (DBH eta Batxilergoan) igoko da irakasleen gastuak. Aurreikuspen beltzak ditugu administrazio eta zerbitzuetako langileen kasuan. Ekiparaziotik kanpo egoteaz gain soldata baxuak dituzte, ikastolako langileenak baino baxuagoak. Modulua %3a igotzen da kontzeptu honetan, IPCko igoera baino 1,2 puntu gutxiago. Nola onartu holakorik?

Ikus dezagun zein den patronalen proposamena mahaia negoziatzailean. ★

boletina

EHAA 227 2007eko azaroak 26

AGINDUA Hezkuntza Berezian arituko diren lan-kontratuko langileen 50 plaza izaera finkoz betetzeko hautaketa-probetarako deialdia egiten da.

AGINDUA Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko hautaketa-prozedura deitzen da.

EHAA 228 2007eko azaroak 27

AGINDUA, Bigarren Hezkuntzako katedradun eta irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen, Hizkuntza-Eskola ofizialetako katedradun eta irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta irakasleen eta Diseinuko Katedradun eta irakasleen kidegoetako funtzionarioak lekuz aldatzeko lehiaketarako deia egiten duena.

EHAA 235 2007eko abenduak 7

AGINDUA, Bigarren Hezkuntzako Institutuetako, Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuetako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Musika Kontserbatorioetako unibertsitateaz kanpoko sare publikoko irakaskuntzako langileen plantilak lanpostuen zerrenda berriaren arabera egokitzeko prozesuaren behin betiko emaitza.

EHAA 236 2007eko abenduak 10

EBAZPENA hautatze-prozeduretan aritu behar den epaimahaiaren osaera argitara ematen duena. Agindu horren bitartez, hain zuzen ere, Hezkuntza Berezian arituko diren lan-kontratuko langileen 50 plaza izaera finkoz betetzeko hautaketa-probetarako deialdia egiten da.

EHAA 241 2007eko abenduak 17

AGINDUA, hutsak zuzentzekoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Arte Plastiko eta Diseinuko Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetan sartzeko 2006ko martxoaren 9ko Aginduaren bidez deitutako hautatze-prozeduretan hautatutako oposiziogileak karrerako funtzionario izendatzen dituen".

EHAA 241 2007eko abenduak 19

EBAZPENA: prestakuntza-proiektuak eta hezkuntza berrizatzeko proiektuak egin ditzaten, ikastetxeei diru-laguntzak emateko deialdia ebazten duena.

EHAA 247 2007eko abenduak 27

EBAZPENA Lanbide Heziketako Heziketa Zikloak ematen dituzten irakasleei, irakasleria horren prestakuntza-ekitaldietan parte hartzen laguntzarren, hainbat motatako banako dirulaguntzak emateko behin betiko ebazpena hartzen duena.

EHAA 4 2008eko urtarrilak 7

EBAZPENA, Hezkuntzako Laguntza Zerbitzuetako (Berritzeguneak, ISEI eta IHHIIak) lanpostuetara behin betiko atxikipena argitara ematen duena.

EHAA 6 2008eko urtarrilak 9

EBAZPENA Berezian arituko diren lan-kontratuko langileen 50 plaza izaera finkoz betetzeko hautaketa-probetarako prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta lehiaketaz kanpo utzitakoen behin-behineko zerrenda onartzen da.

EHAA11 2008eko urtarrilak 16

AGINDUA, Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloen antolamendueredu berria arautzen duena. Eredu berriaren arabera, eskaintza malgua egingo da, prestakuntza eta lan-jarduera uztartzea ahalbidetzeko